

H_{LH4}

2017/2018



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea:

Herria:

Data:

Euskal Hizkuntza
Gaitasuna

LHko 4. maila



Jarraibideak

Probak bi zati ditu: bata irakurriaren ulermenarena, eta bestea, idazmenarena.

- Probako **lehenengo zatian** zenbait testu irakurriko dituzu, eta horiei buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

- Probako **bigarren zatian** idazlan bat egin beharko duzu, eman zaizkizun jarraibideei kasu eginez.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

1. zatia - Irakurmena

KIRATSAREN USAIN EDERRA

Askotan ez da erraza izaten desberdintasunak ulertzea. Iruditzen zaigu guretzat polita denak polita izan behar duela denentzat. Sarritan gertatzen da, ordea, batentzat ederra dena itsusia izatea beste batentzat. Edo, ipuin honetan bezala, kiratsa dena batentzat usain gozoa izatea beste batentzat.



Begira bestela zer gertatu zitzaion Tajar izeneko gizon bati.

Tajarrek hiriko estoldetan lan egiten zuen. Estoldak hiriaren azpian egoten diren erreten edo kanal batzuk dira, eta handik joaten dira jendearen kakak, pixak eta ur zikinak. Pentsatuko duzue, noski, zer kirats egongo den han.

Baina Tajar egunero ibiltzen zen zikinkeria artean, eta ohituta zegoen kirats eta usain txarretara. Kaka usaina, adibidez, ez zitzaion txarra iruditzen inola ere.

Behin, perfume-denda bat zabaldu zuten bere auzoan. Tajar haren aurretik igaro zen egun batean, eta, hango usainak aditu zituelarik, arraroak iruditzen zitzaizkion, bera ez baitzegoen ohituta halakoetara. Perfume-dendara sartu zen usain xeble haiek hobeto dastatzeko asmotan; sakon-sakon hartu zuen arnasa, baina berehala gorputza gogor-gogor jarri zitzaion eta ziplo erori zen lurrera, konortea galdua.

Dendariak larritu egin ziren, eta auzokoei hots egin zieten laguntza eske. Tajarren anaiari ere deitu zioten, eta hau berehala agertu zen, kaxatxo bat eskuetan zuela.

– Lasai, ez da ezer -esan zion patxadaz Tajarren anaiak perfume-dendan bildu zen jendeari.

Tajarren anaiak zabaldu zuen kutxatxoa, eta, denen harridurarako, kaka mokoilo eder bat agertu zen han barruan. Anaiak sudurraren pare-parean jarri zion kaka mordoa Tajarri, eta hau berehala esnatu zen, esanez:

– Hau bai usain ederra!



Ipuin arabiarra (Mixel Muruak moldatua)

1. Zeri esaten zaio “kiratsa”?

- A. Edozein usaini.
- B. Gustukoa den usainari.
- C. **Desatsegina den usainari.**
- D. Zorabio edo mareoari.

2. Zer esan nahi du ondorengo esaldiak: “Iruditzen zaigu guretzat polita denak polita izan behar duela denentzat”?

- A. Pertsona guztiek gustu berdinak izaten ditugula.
- B. **Uste dugula denoi gauza berdinak gustatzen zaizkigula.**
- C. Norbait gure gustu berdinekoa bada, polita dela.
- D. Gustuei dagokienez bakoitzak bereak dituela.

3. Non egiten zuen lan Tajarrek?

- A. **Hiriko estoldetan.**
- B. Hiriaren azpian.
- C. Kiratsa dagoen tokietan.
- D. Perfume-dendan.

4. Nork kontatzen du istorioa?

- A. **Narratzaile batek.**
- B. Tajarrek.
- C. Tajarren anaiak.
- D. Dendariak.

5. Zer dira “Estoldak”?

- A. Kiratsa dagoen tokiak.
- B. Hirietan dauden kanalak.
- C. **Hiri azpiko erreten edo kanalak.**
- D. Kaka eta pixa egiten dugun tokiak.

6. Aukeratu ezazu zuzena dena:

- A. Tajarri perfume usaina txarra iruditzen zitzaion.
- B. Tajarri perfume usaina arraroa egiten zitzaion.
- C. Tajarri perfumeak zorabioa sendatu zion.
- D. Tajarri kiratsa arraroa egiten zitzaion.

7. Zeren ondorioz erori zen Tajar “ziplo” lurrera?

- A. Perfumeagatik zorabiatu zelako.
- B. Gorputza gogortu zitzaiolako.
- C. Zikinkeria artean lan egiten zuelako.
- D. Usain haiek gaixotzen zutelako.

8. Nortzuei deitu zieten dendariak laguntza eske?

.....

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Auzokoei eta Tajarren anaiari.

9. Zergatik esango du Tajarren anaiak “Lasai, ez da ezer”?

- A. Anaia delako.
- B. Bere beldurra ezkutatzeko.
- C. Badakielako Tajar nola sendatu.
- D. Sorpresa bat duelako.

10. ...“kaka mokoilo eder bat agertu zen han barruan”... Non?

- A. Kaxaren barruan.
- B. Estoldaren barruan.
- C. Dendaren barruan.
- D. Tajarren anaiaren eskuetan.

11. Zergatik harritu ziren dendan zeudenak?

- A. Kaxan kaka zegoelako.
- B. Kaxaren tamaina oso handia zelako.
- C. Kakak usain goxoa zuelako.
- D. Tajar esnatu zelako.

12. “– Hau bai usain ederra!” esaten duenean, zeri buruz ari da Tajar?

- A. Dendako perfumeei buruz.
- B. Estoldetako usainari buruz.
- C. Kutxako kaka mokoiloari buruz.
- D. Laneko kiratsari buruz.

13. Nork berridatzi du ipuina?

- A. Arabiar batek.
- B. Mitxel Muruak.
- C. Idazle ezezagun batek.
- D. A, B eta C zuzenak dira.

14. Zein da ipuinaren ideia nagusia?

- A. Tajarren istorio bitxia.
- B. Kiratsa usain goxoa da.
- C. Gustu berdinak ditugu gizakiok.
- D. Gustu desberdinak izan ditzakegu gizakiok.

1. PAGO ETA HARITZEN ARTEAN GOZATZEKO INGURUA !

Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako mugek bat egiten duten inguru paregabea da daude Urbasa, Andia eta Aizkorriko mendilerroak. Bertako pagadi eta hariztietan zaldiz barneratzeak erreka, amildegi, kobazulo eta trikuharri dotoreez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digu.

2. URDIAINGO ERROTA topaleku eta abiapuntua izango dugu.

XIX. mendeaz geroztik Burunda ibaiko urek jarraitu dute errotarriei bultzaka aleetatik irina sortzeko.



ZALDI IBILALDIAK

Zeure neurriko esperientzia



4. GURE ZALDIAK

Errotainen, zure maila edozein delarik ere, zaldiekin gozatu ahal izango duzu. Ibiltzen zaren lehen aldia izan zein zaldi ibiltari trebea izan, ez zaizu aukerarik faltako. **Gure zaldiak zelaietan libre ibiltzen direnez**, izaera orekatukoak dira ume eta hasiberriekin aritzeko, baita indartsuak ere ibilbide luzeagoak egiteko.

3. IBILALDIAK

Ordubete edo bi ordukoak

Azken jentilen babesleku izan ziren hariztietan barrena gozatzeko ibilbideak. Antzinako baserriak, zuhaitzen gaineko etxolak edota Nafarroako lehen erregea bera koroatu zuteneko baseliza ezagutzeko aukera ezin hobea izango duzu gurekin.

Egun erdi edo egun osokoak

Zaldizko trebeenentzako irteerak. Gure mendietara iritsi eta bertako paisaia paregabeaz gozatu ahal izango duzu. Harizti amaigabeetan galopan ibiliko zara antzinako zaldunen modura.

“Errotain” triptikoa (moldatua)

15. Zer da “Errotain”?

- A. Nafarroan dagoen errota bat.
- B. **Zaldi ibilaldiak antolatzen dituen enpresa bat.**
- C. Nafarroa, Araba eta Gipuzkoaren artean dagoen toki bat.
- D. Zaldi baten izena.

16. Zein da zaldi ibilaldien abiapuntua?

- A. Zelai bat.
- B. **Urdiaingo Errota.**
- C. Errotain.
- D. Pagadi eta hariztiak.



17. Zure ustez, zer adierazten du “Zeure neurriko esperientzia” esaldiak?

- A. Zure tamainari egokitutako zaldiak dituztela.
- B. Denbora gehiago pasatzen dutela ez dakitenekin.
- C. **Zure ezagutza eta trebetasun maila kontuan izango dituztela.**
- D. Zuk erabakiko duzula nondik ibiliko zaren zaldiarekin.

18. Zaldi ibilaldiak...

- A. toki laueta egiten dira.
- B. **mendi eta baso artean egiten dira.**
- C. mendietan egiten dira.
- D. A, B eta C okerrak dira.

19. Zaldi gainean askotan ibilia baldin bazara,...

- A. aukera bakarra ordubete edo bi orduko ibilaldiak dira.
- B. aukera bakarra egun erdi edo egun osoko ibilaldiak dira.
- C. nahi duzun aukera baliatu dezakezu.
- D. **egun erdi edo egun osoko ibilaldia aholkatzen dute.**

20. Zergatik eramaten dituzte zaldizko trebeenak bakarrik mendietara?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Arrazoi hauetako bat ematen du: • Toki arriskutsuak direlako gailurrak. • Zalditik erori eta min hartzeko aukera asko dagoelako. • ...

21. Txangoetan, zer EZIN da ikusi?

- A. Errekak, amildegiak, kobazuloak eta trikuharriak.
- B. Pagadi eta hariztiak.
- C. Baserriak, zuhaitzen gaineko etxolak eta baselizak.
- D. **Gazteluak eta hartzak.**



22. Zaldian ibiltzen EZ dakienak ere gozatu dezake Errotaingo zaldiekin?

- A. Ez, oso zaila delako zaldi gainean ibiltzea.
- B. Bai, erraza delako zaldi gainean ibiltzea.
- C. **Bai, beraiek erakusten dizutelako.**
- D. Ez, beldur handia pasatzen delako.

23. Errotaingo zaldiak “izaera orekatukoak” direla esaten du testuak. Zergatik?

- A. Zaldiak jatorrak direlako.
- B. **Zelaietan libre ibiltzen direlako.**
- C. Umeekin eta hasiberriekin aritzen direlako.
- D. Indartsuak direlako.

24. Zergatik erabiltzen dituzte zaldi berberak hasiberriekin eta zaldizko trebeekin?

- A. Ibiltari trebeentzako direlako.
- B. Zaldiak edozein mailara egokitzen direlako.
- C. Zelaietan libre ibiltzen direlako.
- D. Zaldi indartsuak direlako.

25. Testua eta irudiak ondo aztertu ondoren, zure ustez, Urdiaingo Errotan...

- A. zaldiak bakarrik aurkituko dituzu.
- B. zaldiak eta etxeko animaliak daude.
- C. txerriak eta ahuntzak daude.
- D. txoriak eta zaldiak ikusiko dituzu.

2. zatia - Idazmena

Orain, zeu zara idazlea...sorpresa bat eman dizute gurasoek, familia handituko zaizue!

6 hilabete barru familian bat gehiago izango zaretela esan dizute gurasoek. Nola sentitzen zara egoera horren aurrean? Nola imajinatzen duzu bizitza jaiotzen denean? Nolakoa izango da? Bizitza asko aldatuko zaizuela uste duzu?



Idazlana egiten hasi aurretik, hurrengo laukian ideia labur batzuk apuntatu ahal dituzu jarraibide gisa erabiltzeko. Izenburu bat ere asmatu.

A large dashed rectangular box intended for writing ideas and a title.

26. Aurreko ideietan oinarrituz, testu bat idatzi eta gogoratu:

- Idatzi ongi eta txukun.
- Testuari izenburu bat ipini.
- Bereizi testua paragrafoetan.
- Errespetatu ortografia arauak.
- Eta ez ahaztu puntuazio-markak erabiltzea!

Amor

***Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula***

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	
Kontakizunaren koherentzia	
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	

26. itema – Guztira

--

Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 0tik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza. ▪ <u>Mariinak</u> ongi zehazturik daude. ▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Kontakizunaren koherentzia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu). ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan. ▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da. ▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte. ▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ <u>Pertsonaien ezaugarritzea</u>: pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i> ; <i>geroago</i> ; <i>hala ere</i> , etab.; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ <u>Komunztadura</u> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ <u>Erregistroa</u>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza. ▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Jarraian, aurrez azaldutako zuzentzeko irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskribapen zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ezin da prozedura mekanikoa izan. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, aipatutako adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

BATGEHIAGO FAMILIAN

- Amedien eron zidun lehen jaiako zela amaren zikloarekin onreka
 oihane deituko zela da (Bate) noia enate zidun jaiatuko
 muen lemanekin bea-bea jaiatuko (Bate) Kio muen
 eta konfiantzako muen zire jaiatuko eta ilea oia lurrea
 izanar zure.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
 bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	1
Kontakizunaren koherentzia	1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	0
26. itema – Guztira	2

1. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Ez da txukuna. Zirrimarrak daude.
- Letra. Asko kostatzen da irakurtzea.
- Marjinak. Ongi zehaztuak badaude ere, bere idazlanaren zikin itxurak itsusitzen du.
- Ortografia. Testua laburra da eta ez da akats asko nabari.

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetatik bat bakarrik betetzen du. Beraz, dagokion puntuazioa 1 da.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Gertaerak kronologikoki kontatu baditu ere, amaiera egokirik gabeko testua da.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da.
- Perpausak. Ideia osoak adierazi ditu.
- Joskera. Perpausen arteko joskera oso pobrea da. Bere lana perpaus luze bat bezalakoa da. Testu antolatzaileak falta dira.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako bakar bat bete du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi pobrea darabil. Perpausak bata bestearen atzean idatzi ditu "eta" juntagailua erabiliz.
- Aditzak. Aditz-denborak ez ditu guztiz ongi erabili.
- Komunztadura. Pluralgilea oro har ongi erabili badu ere, ez dago aberastasunik.
- Deklinabidea. Ergatiboaren erabileran, gehienetan, akatsak ditu.
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Nahiko ongi baldin badago ere, eskasa da Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik ez du guztiz ongi betetzen bat bakarra ere. Beraz, dagokion puntuazioa 0 da.

2. adibidea

6 hilabete bazoan familiari bat gehiago izango
garela esan didate gurasoek eta esae widwai jarri
n mintzen, es nehelake nola izango zen nire bizitza.
Bapatean nire ama eta aita urte bat erakutsi zidaten
eta hori nire amai izango zela esan zidaten, ordu
anorera nire bizitza orke aldatu zen zergaitik
nire ama eta aita ez zidaten ganean
ipuntik irakutsi eta urteak bekatu arte ezin
zen negar usteari utzi. Anditzen joan zenean
lagunak eziten ari ginen.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3	
Aurkezpena eta ortografia	1
Kontakizunaren koherentzia	1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
26. itema – Guztira	4

2. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun eta zirrimarrarik gabe idatzita dago.
- Letra. Argixeagoa izan badaiteke ere, errez irakurtzen da.
- Marjinak. Ongi zehazturik dago ezkerrekoa; eskuinekoa, aldiz, hobekiago egon liteke.
- Ortografia. Ez dago akatsik.

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetako bi betetzen ditu ongi. Beraz, puntuazioa puntu 1 da.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Ideiak modu kronologikoan kontatzen saiatu da, baina perpausen arteko kohesio desegoki ugari dago.
- Paragrafo kopurua. Testua paragrafo bakar batean egituratuta dagoenez, zaila da ideien arteko lotura semantikoa antzematea. Puntuazioa ere ez da egokia, komaren eta puntuaren erabilera nahasgarria du eta. Izan ere, idazlanaren kanpo egitura ez da egokia; izenbururik ez duelako eta kontakizuna paragrafo bakar batean idatzita dagoelako.
- Bilakaera tematikoa. Zaila bada ere, bilakaera tematikoa hautematen da.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Perpausen arteko joskera pobrea da, perpaus sinpleak bakarrik erabili dituelako.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako bi bete ditu ongi. Beraz, dagokion puntuazioa 1 da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi pobrea darabil. Ia beti perpaus sinpleak baina zuzen erabili ditu.
- Aditzak. Aditz-denborak zuzen erabili dituen arren, aditz baten erregimena gaizki erabili du (*“oso ongi pasatu nintzen”, “nire anai ere ondo pasa zuen”*).
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboaren erabileran batik bat, zenbaitetan huts egin du (*“nire ama eta aita ume bat erakutsi zidaten”*).
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Nahiko ongi dago.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako 4 bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

3. adibidea

Nise gurasoak esan didate 6
hilabete barru anitxo bat izango
dudala oso pozik nago.

Umea asko aldatuko du gure
bizitza lenegorustetan.

Umea oso txikia izango denez
atentzio gehiago behariko du eta
ni pixkabat baztertu eta egongo niaz.

Ni umearekin asko jolastu nahi
dut baina agian munda egiten diot
eta bronka botako didate eta
osi ez zait gustatzen.

Bizitza pixkabat aldatuko zait
baina ez zait inportea anai bat
konpañia egiten egongo bada.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3	
Aurkezpena eta ortografia	2
Kontakizunaren koherentzia	2
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
26. itema – Guztira	6

3. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun idatzita dago. Itxura ona eta zirrimarrarik gabekoa.
- Letra. Argia eta irakurterraza da.
- Marjinak. Ezkerrekoa ongi zehaztua dago, aldiz eskuinekoa ez dago guztiz ongi.
- Ortografia. Akats gutxi dago.

Alderdi honen balorazioa: oro har, lau baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Argia da. Gertaerak kronologikoki eta ongi kontatu ditu.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren kanpo egituraren lizenburua falta zaio. Hainbat paragrafo ditu. Zenbaitetan koma falta da.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da kontakizuna. Argi hautematen dira pertsonaiak eta lekuak.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Perpausen arteko joskera. Paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude. Hala ere, testu antolatzaile gutxi erabili ditu.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: oro har, sei baldintzak bete ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa dagokio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi oso aberatsik ez badarabil ere, perpausak modu zuzenean erabili ditu.
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Akats batzuk badaude.
- Deklinabidea. Akats batzuk daude.
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Modu egokian dago.

Alderdi honen balorazioa: oro har, sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

4. adibidea

BAT GEHIAGO FAMILIAN

Aitak eta amak 6 hilabete barru, ume bat bat eukiko dutela esan didate. Hitzik gabe gelditu nintzen baino barrutik emozioz oiuka. Nik ume txiki eta eder bat imaginatzen dut. Bizitza aldatuko diden ume bat baina kusi beharko da 6 hilabete barru zere ateratzen den.

Hilabete bat pasa da orai esan zidatenetik eta oso urduri nago baino oraindik asko falta da. Nire klasekoai esan diet eta herriko lagunei. Ez dakit nosi gehio esan. 2. hilabetea pasa da eta berarentzat logela prestatzen ari da aita. Ama eta ni ordea, jostailuak erosten ari gara eta belarrak ematen tripan jartzen dudanean, ostikoak ematen dizkit. 3 hilabetea oso azkar pasa zen eta bakarrak sukaldaraka aulki bat erosi genuen. 4 eta 5 hilabetea eskaileretan barreak jarri genituen eta kura bat ere ez da ezer falta! Azken hilabetea igarria biberotak eta erosi genituen eta ama ospitalera joan da emen dago anaia.

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	3
Kontakizunaren koherentzia	3
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	3
26. itema – Guztira	9

4. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun idatzita dago. Itxura ona eta zirrimarrarik gabekoa.
- Letra. Argia eta irakurterraza.
- Marjinak. Eskuinekoan akats batzuk baditu ere, oro har ongi zehazturik dago.
- Ortografia. Ez dago ortografia akatsik.

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzak aise bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Gertaeren arteko hurrenkera kronologikoa egokia da.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren kanpo egitura egokia da, izenburua eta hainbat paragrafo dituelako. Puntuazioa modu egokian erabili du.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da. Eskatutako lanari erantzun dio (xede eta luzera). Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskerak. Alderdi honetan ez dago aberastasun handiegirik.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Perpausak modu zuzenean erabili ditu. Sintaxi aberats samarra erakutsi du, (ume bat edukiko dutela esan didate)
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik. ("aitak eta amak").
- Deklinabidea. Oro har, zuzentasunez erabili du.
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Modu egoki eta zehatzean baliatu du hiztegia.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.